

2006KO UZTAILAREN 12KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko uztailaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2006ko maiatzaren 9an eta 2006ko ekainaren 6an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUEHUN ETA HOGEITA HAMALU MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA SEI euro eta LAUROGEITA HAMABOST zentimo (434.726,95 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 217 zbk.dun esped.: astean 6 egunez eta egunean 2 orduz zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %48a izango da.
- 739 zbk.dun esped.: astean 5 egunez eta egunean ordu beteko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %35a izango da.
- San Benito Ikastolari dirulaguntza.-

San Benito Ikastolari mila zazpiehun eta hirurogei (1.760,00 €) eurotako dirulaguntza ematea, "gure seme-alabak nola zaintzen ditugun" eta "nerabetasunak sortzen dituen arazoak" gaien inguruan gurasoei eman zaizkien heziketa saioengatik.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrek honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari, mintzalagun proiektuan 2006ko urtariletik maiatzera egindako gastuei aurre egiteko, zazpi mila zazpiehun eta hemeretzi euro eta laurogeita hemeretzi zentimo (7.719,99 €).
- Nerea Barandiaran Baztarrikari, Lazkao Txiki Musika Eskolaren jarduerarengatik, zazpi mila (7.000 €) euro ematea.
- Nekane Eskisabel Bereziarturi, Elozegi 13ko behean ATARI barne diseinua eta altzariak merkataritza errotulua euskara hutseak jartzeagatik hirurehun (300 €) euro ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.